



ABANDOKO
SAN BIZENTE MARTIRIAREN
PARROKIA

PARROQUIA
DE SAN VICENTE MÁRTIR
DE ABANDO

Done Bikendi plaza 3. 48001 Bilbao (Bizkaia)
T. 94 423 12 96
parroquia@sanvicentemartirdeabando.org

EBANJELIOA: BEHAR DUGUN BERRIA

“Hauxe dut neure Semea, nik hautatua. Entzun berari!”

2022ko martxoaren 13a
Garizumako 2. igandea (C)

Lukas 9, 28-36.

Hitzaldi honetatik zortziren bat egunera, Pedro, Joan eta Santiago berekin hartu eta mendira igo zen Jesus, otoitzera. Eta, otoitzean ari zela, aurpegiaren itxura aldatu egin zitzaion, eta jantziak zuri distiratsu bihurtu. Hartan, bi gizon azaldu ziren, aintzaz distiratsu: Moises eta Elias, eta Jesusekin mintzo ziren Jerusalem gertatzekoa zen honen heriotzaz. Pedro eta lagunak logaleak jota zeuden; baina esnatu ziren eta Jesusen aintza eta harekin zeuden bi gizonak ikusi zituzten. Hauek urruntzean, Pedrok esan zion Jesusi: “Maisu, zein ederki gauden hemen! Zergatik ez egin hiru etxola: bata zuretzat, bestea Moisesentzat eta bestea Eliasentzat?”

Ez zekien zer esaten zuen ere. Eta, hori zioela, hodei batek estali zituen, eta beldurtu egin ziren hodeipean sartzean. Mintzo hau entzun zen hodeitik: “Hauxe dut neure Semea, nik hautatua. Entzun berari!”

Mintzoaren ondoren, Jesus bakarrik ageri zen. Ikasleek isilik gorde zuten eta, ordukoz, ez zioten inori esan ikusitakorik ezer.

“Jesusek bere heriotzea iragarri deutse apostoluei; baina honek ezon dabe sinistu Jesusek neke-bidea hartu behar duanik”

JESUSI BAKARRIK ENTZUN

Jose Antonio Pagola

Pasadizo honi, tradizioz, «Jesusen antzaldaketa» deitu ohi zaio. Ezinezkoa da kontakizun harrigarri honen iturburu izan den esperientzia seguru berregitea. Hau dakigu soilik: ebanjelariak garrantzi handia eman diotela, zeren, kontakizunaren arabera, Jesusen zinezko nortasunaz zerbait barruntatzeko bidea ematen duen esperientzia baita.

Lehenik eta behin, Jesusen aurpegiaren aldaketa nabarmendu du kontakizunak, eta, Moises eta Elias haren solaskide ageri diren arren, agian hurrenez hurren legearen eta profeten ordezkari bezala, soilik Jesusen aurpegiak jarraitzen du eszenan antzaldaturik eta distiratsu.

Itxuraz, ikasleek ez dute hauteman ikusten ari direnaren esanahi sakona; izan ere, Pedro dio: «**Maisu, bai ondo gaudela hemen. Hiru txabola eginen ditugu: bat zuretzat, bestea Moisesentzat eta hirugarrena Eliasentzat**». Bibliako bi pertsonaia handi horien ikuspegi eta maila berean ipini du Jesus. Nori bere txabola. Jesusek ez du artean erdiko lekurik eta nagusirik Pedroren bihotzean.

Jainkoaren ahotsak zuzenduko dio ikuspegi hori, Jesusen benetako nortasuna agertuz: «**Neure Semea dut hau, hauta**», aurpegia antzaldaturik duen hau. Ez da nahastu behar Moisesen eta Eliasen aurpegiekin, hauena itzalia da. «**Entzun honi**». Eta ez beste inori. Honen hitza da erabakitzaile bakarra. Gainerakoek honengana bideratu behar gaituzte.

Premiazkoa da berreskuratzea gaur egungo Elizan ebanjelioetan datorren Jesusen kontakizun honen esperientzia, hasiera hartan kristau-elkarteek izan zuten hau. Lau idazki hauek besterik ez bezalako obra dira kristaudentzat; ezin parekatu ditugu Bibliako gainerako liburuekin.

Bada lau hauetan bakarrik aurki genezakeen zer bat: hark erakarrik sentitu eta jarraitu zioten lehenengo haiengan Jesusek eragin zuen zirrara. Ebanjelioak ez dira liburu didaktikoak, Jesusez eskola-irakaspena ematen dutenak. Ez dira biografiak ere, Jesusen ibilbide historikoa xeheki dakartenak. «Konbertsio-kontakizun» dira, aldaketara, Jesusi jarraitzera, haren egitasmoarekin bat egitera gonbidatzen dutenak.

Horregatik behar dira entzun konbertsio-jarreraz. Eta jarrera hori behar da izan irakurtzean, predikatzean, hausnartzean eta fededun bakoitzak eta elkarte bakoitzak bihotzean gordetzean. Igandero Jesusen ebanjelio-kontakizuna konbertsio-jarreraz entzuten dakien kristau-elkartea hasia da eraldatzen. Ez du Elizak bere burua berritzeko potentzial indartsuagorik lau liburu koxkor hauek baino.